

Mirenek lan hau Euskaltzaindiaren eta LEF batzordearen ibilbide luzean kokatu ondoren, goazen orain lanaren barrenak agerira ekartzera.

Esan bezala, talde-lana dago LEF batzordea zenaren azken argitaralantzat har daitekeen *Hitz-elkarketa/2* honen atzean, neurri batean bederen.

*Hitz-elkarketa/4*ko sailkapenean lerrotxo bat besterik ez du hartzen lan honen mamiak; 11.a, “Eguzki-lore menpekotasunezko izen elkartuak”.

Hitz elkartu mota hori, mendekotasunezko izen elkartuak, hain zuen, aztertu ditugu hemen. Azken orraztuan 11.000 izen elkartuk osatu duten eta liburuaren oinarria den adibidetegiak osatua.

11.000 izen elkartu. ‘Asko’ eta ‘gutxi’ kontzeptuak ez dira absolutuak, zeri begiratzen zaion, baina aztertu eta sailkatzeko gutxi ere ez dira eta, nolana dela ere, beste zerbaiten ispilua dira: elkarketa mota hau oso baliabide indartsua da euskaraz, hiztunak oso eskura sentitzen zuen eta sentitzen du adierazi nahi duen dena delakoa adierazteko.

11.000 hitz horietara iristeko erabili dugun corpora ez da osatu berri-berria. Ez da orain arrazoiak ematen hasteko lekua, baina esan dezagun corpora zabaltzeak ez lukeela, gure ustez, larregi aldatuko hemen ikertu eta azaltzen ari garena.

Corpus handi hura sailkatu eta sail handien gaineko **txostenak** egin zituzten LEFkideek, aspaldixko, eta jardunaldietan aurkeztu, Mirenek esan duen bezala. Bihoazkie gure eskerrak orduko batzordekide guztiei.

Urte batzuk pasata, *Hitz-elkarketa/2*ri ekin behar zitzaioela eta, lanari berriz heldu genion eta txostenak aztertzen, osatzen, batzen, Lexikologiako teoria eta proposamen berriagoetara egokitzen ahalegindu ginen eta, horrela, urte askoren (gehiegiren) bueltan iritsi gara batzuetan hasierako txosten haien antz erabatekorik ez duen hemen daukagun bi hankako lan hau aurkeztera. Azalpenak dituen liburuaren hanka eta adibidetegiarena, biak elkarrekin lotuak

Liburuaren aurkibide xeheari begiratzen badiogu konturatuko gara lehentxeago ekarri dugun *Hitz-elkarketa/4*ko lerro bakar labur haren oskolak (11.a “Eguzki-lore...”) aletxo asko estaltzen dituela.

Bi multzo handitara ekarrira, “behi-esne” moduko mendekotasunezko izen elkartu arruntak eta arruntak ez direnak, elkartuko ezkerreko izena (mugatzailea) edo eskuinekoa (mugakizuna) arruntak ez direlako, hainbat arrazoi direla medio. Sail eta adibide gehienak mugakizun berezia dutenak dira (7 sail dira).

Elkartu bereziak hautematea zaila ez da; osagaia bera da, izen bera da berezitasunaren ageriko seinalea. “Multzo-elkarteen” ezaugarria bada eskuineko osagaiak, hain zuzen, beti multzoa adierazten duela, ez da arrunt nekeza ohartzeari *neskatalde* “multzo-elkartea” dela, *sos-pixar* “zati-elkartea”, eta *txori-mota*, “mot- elkartea”. Jakina, beste kontu bat da halako hitz elkartuak gero nola aztertu behar diren.

Ez gara mota bakoitzaren berri ematen hasiko, baina esan dezagun “behi-esne” moduko arruntak sailkatzen eta azpisailkatzen ahalegin berezia egin dugula hemen. Horretarako, makina bat ordu eman diogu hitz elkartua sailkatzeari osagaien arteko erlazio semantikoen arabera. Beste hizkuntza batzuetan bereizten diren erlazio semantikoak gogoan izan ditugu. 11 erlazio semantiko mota bereizi ditugu (11 berriz ere) mendekotasunezko izen elkartu arruntetan.

Dioguna argitzeko jo dezagun adibideetara *Su-txipristin* eguzki-lore motako izen elkartu arrunta da eta ‘jatorria’, ‘iturburua’ adierazten du ezkerreko osagaiak, *txipristina* nondik datorren, non sortua den, zerk eragiten duen adierazten baitu. *Trumoi-hots* hitzeko trumoiak ere ‘egilea’, ‘kausa’ adierazten du, eta... *behi-esneko* behiak ere horixe bera.

Horren antzeko eta horren desberdina den *esne-behiko* esneak, berriz, ‘emaitza’, ‘ondorioa’ adierazten du, esnea behiak ematen duen dena delakoa delako, eta horrexek bereizten du, gainera, beste behi mota batetik, haragitarako diren behietatik.

Esan beharrik ez dago sailkatze lana ez dagoela sailkatzailearen interpretaziotik kanpo eta, gainera, hitz elkartu berak erlazio bat baino gehiago adieraz ditzakeela. Demagun *tabako-zorro* hartzen dugula; ‘edukia’ adierazten ari gara, zorroak tabakoa gordetzen duelako, baina baita ‘helburua’ ere, zorroa tabakoa gordetzeko baita.

Hona iritsita zehaztapen batzuk egin beharrean gara. Gure interpretazioa islatu dugu eta ulertzeko modu horren arabera kodetu ditugu hitzak adibidetegian hemen edo hor. Interpretazio bat baino gehiago atxiki diogunean elkartuari sailkaleku bakarrean kodetu

dugu. Adibidetegiko hitz guztiek dute bere testuingurua, jatorri liburuaren kodea eta guk ezarritako sailkatzeko kodea.

Adibidetegia behin baino gehiagotan jiratu (itzulipurdikatu?) dugu. Egia osoa aitortu behar bada, aurreko lan-saioan hartutako erabakia aldatu ere bai, batzuetan. Eta azken finean, lanaren tamainak ere seguru eraman gaituela behin baino gehiagotan oharkabean hutsak egitera eta, beharbada, inkoherentziaren batera. Hortaz, lana berandu eta, gainera, akatsak dituela?

Lan osoan —bai liburuan, bai adibidetegian—, xuxenak makurra azpian hartuko zuelakoan, Mirenek arestian esanari erants diezaiogun gure asmoa, espero duguna dela euskal hiztunak, kontsultagileak lan honetan ispilatuta topatzea bere gramatikaren osagai bat, hitzen sorreraren baliabideetako bat, nolabait azaldua. Berriz ere, adibide bat jartzearen, ikusiko duela multzo-elkarteetako *talde* mugakizuna batez ere bizidunez aritzeko erabiltzen dugula eta mota bereko *sorta*, berriz, oro har ez dugula erabiltzen bizidunez aritzeko.

Era berean, uste dugu hainbat ikerbide ere zabalik uzten dituela lan honek. Hamaika bai, gutxienez.

Berandutu izanaren eta paper-usainaren galera berdintzen lagundu dute Euskaltzaindiko informatikari eta editoreek Interneten eskuragarri jartzeko egin duten lanari esker. Eskerrik asko denei; Jon Artzari bereziki.

Donostian, 2014ko uztailaren 3ean

Elixabete Perez Gaztelu